

OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUEN EGOERA EAE-N

**Ararteko erakundeak 2014ko ekainaren 26an
Gasteizen egindako jardunaldian ateratako
ondorio nagusiak**



1. AURKEZPENA, HELBURUAK ETA ONDORIO NAGUSIAK

1.1. Aurkezpena

Agiri honetan bildu da Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera aztertzeko asmoz ekainaren 26an Ararteko erakundearen egoitzan egin zen jardunaldia-ren laburpena. Jardunaldi hori Arabako Gizarte Laneko Elkargo Ofizialak eskatuta egin zen eta hiru elkargoetako hainbat kidek hartu zuten parte, baita ere Ararteko erakundeko ordezkari batzuek eta Iñigo Lamarca arartekoak berak. Orobat, jardunaldian parte hartu zuten SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko zenbait ordezkari, zentro horrek oinarrizko agiriak prestatu baitzituen Arartekoak 1999an eta 2009an oinarrizko gizarte zerbitzuen egoeraz egin zituen bi txosten berezietarako.

Bai jardunaldiak, bai hori jasotzen duen agiriak, bi xede dituzte: batetik, Arartekoak oinarrizko gizarte zerbitzuen egoeraz 1999an egindako txosten bereziko gomendioak betetzen ari diren aztertzea; eta, bestetik, gizarte langileen elkargoek oinarrizko gizarte zerbitzuei eta aurrerapenik ezari buruz helarazi diguten kezka hausnartzea.

Zehazki, honako hemen jardunaldiko parte-hartzaileak:

Gizarte laneko elkargoetatik etorritakoak

Bizkaia

Arantza Laka Eskauriara, 36/397 elkargokide zenb.
Aitor Jauregi Orbe, 36/085 elkargokide zenb.
Esther Ruiz de Aguirre Gonzalo, 36/153 elkargokide zenb.
Marta Martínez Cuesta, 36/032 elkargokide zenb.

Gipuzkoa

Goretti Bikondo Santamaría, 944 elkargokide zenb.
Miren Martínez Pasandín, 986 elkargokide zenb.
Edurne Zubia Artabe, 163 elkargokide zenb.
Mari Carmen Valois Núñez, 903 elkargokide zenb.
M^a Luisa Agirretxe Aizpitarte, 517 elkargokide zenb.

Araba/Álava

Vanessa Franco Prieto, 842 elkargokide zenb.

Montse Goikoetxea Salinas 486 elkargokide zenb.
Susana Martínez de Lagrán Zurbano, 690 elkargokide zenb.
Gotzon Villaño Murga, 643 elkargokide zenb.

SIISetik etorritakoa

Joseba Zalakain

Arartekotik etorritakoak

Iñigo Lamarca Iturbe, arartekoa
Julia Hernández Valles, arartekoaren ondokoa
Faustino López de Foronda, idazkari nagusia
Inmaculada de Miguel Herrán, Gizarte Harreman, Azterlan eta Modernizazioko zuzendaria
Itziar Barrenkua Alcauzar, aholkulari teknikoa
Eva Acero Simón, aholkulari teknikoa
Fernando Vázquez Otxotorena, aholkulari teknikoa

Une oro, jardunaldiko parte-hartzaile bakoitzak bere izenean eman zuen iritzia, ez bere zerbitzu profesionalak egiten dituen elkargo edo erakundeen izenean. Orobat, jardunaldian parte hartu zuten guztiei bermatu zitzaizkien beren iritziak isilean tratatuko zirela; horregatik, jardunaldian adierazi zituzten aburuak testu honetan jasotzeko orduan, ez da iritzi-emailean izenik agertzen eta kendu egin dira pertsona zehatz batzuk iritzi jakin batzuekin lotzen lagundu lezaketan elementuak.

Bestalde, garrantzitsua da jakinaraztea bilera hori 2014ko ekainean egin zela, hau da, Gizarte Zerbitzuetako Erakundearteko Organoak Karteraren gaineko Dekretua eta EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu baino sei hilabete lehenago. Beraz, bai Arartekoko teknikariek eta Arabako Gizarte Laneko Elkargoko kideek egindako analisia, bai jardunaldian adierazitako iritziak ere, une hari buruzkoak dira.

1.2. Helburuak eta txostenaren egitura

Jardunaldia bost ardatz edo gai-multzotan egituratu zen, lehen egindako txosten berezietan aztertu ziren oinarrizko gaien arabera:

- Oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera eta horiek Gizarte Zerbitzuen Sistemaren erdian jartzea;
- Erakundeen arteko koordinazioa eta beste ongizate-sistemekin dagoena;
- Araudia garatzea;
- Komunitateko gizarte-lana;
- Lagun egitea eta ikuskatzea, arrisku psikosozialei aurre egiteko.

Jardunaldian barrena, bilerara joan ziren Arartekoko teknikariek eta jardunaldia sustatu zuten Arabako Gizarte Langileen Elkargoko ordezkariak eman zieten sarrera gai-multzoari. Egungo egoera testuinguruan kokatu zuten, azterturiko gai bakoitzarekin lotuta, eta egin zitezkeen galdera batzuk proposatu zituzten, eztabaida antolatzeko. Behin aurkezpen hori eginda, hitz egiteko txandak zabaldu ziren kasu guztietan, galdera horiei erantzuteko edota beste galdera edo iruzkin batzuk egiteko.

Agiri honetan jasota daude, ordenatuta, jardunaldian egin ziren mintzaldiak, bileraren grabaketaren transkripzioa oinarri hartuta. Horrela, ia hitzez hitz jaso dira bileran adierazitako ideiak ustez ongien azaltzen dituzten mintzaldiak, eta ahalik eta gutxien aldatu da adierazpen horien hitzez hitzekoa. Gainera, laburpenean, gai-multzo bakoitzaren hasieran, alde bakoitzak txandaka egin zuen mintzaldia agertzen da laburki, azterturiko multzo bakoitza testuinguruan kokatzeko.

Jardunaldia taxutu zuten multzoen arabera egituratuta dago agiria, eta hurrenkera berari jarraitzen ahalegindu gara, bost multzoetako bakoitza jorratu diren oinarritzko gaien arabera banatuz. Oro har, jardunaldiko parte-hartzaileen mintzaldiak hurrenkera kronologikoan daude, baina kasu batzuetan, errepikapenak saiheste aldera, iritzi batzuk kronologikoki egokituko litzaiekeena ez den beste toki batean sartu dira.

1.3. Ondorio nagusiak

Jardunalditik honako ondorio nagusi hauek atera daitezke, parte-hartzaileek adierazitako iritzietan oinarrituta:

- Arartekoak oinarritzko gizarte zerbitzuei buruzko txosten berezia argitaratu zuenetik ia bost urte igaro eta gero, bileran dauden pertsonak uste dute, oro har, orduan egin zen diagnostikoa neurri handi batean oraindik berbera dela eta oso aurrerapen gutxi egin direla orduan antzeman ziren disfunczioak zuzentzeko.
- Egiaz, alderdi batzuei buruz, esan daiteke egoerak okerrera egin duela, edo 2009ko txostenean jaso ez ziren zenbait gai antzeman direla. Horrela, itxura denez, nahiko zabaldua daude oinarritzko gizarte zerbitzuen eginkizuna nolabait hustu delako kezka eta zerbitzuok beste administrazio batzuen eta, areago, hirugarren sektorearen eginkizun subsidiarioa burutzeraz baztertu dituztelako sententzia. Hustuketa horrek, ordea, lan-zama gutxitu du; nolana ere, lan-zama aldatu egin du.
- Eginkizun-hustuketa horrek zerikusia du udalen gizarte zerbitzuak diruz eta baliabideez behar bezala hornituta ez egotearekin eta, horren ondorioz, besteak beste, ez zaio onurarik ateratzen zerbitzu horietan bildutako ezaguerari eta eskarmentuari, hala pertsonen ibilbideei dagokienez nola beraien udalerrietako errealitateari dagokionez. Horren guztia-
ren isla da honako sententzia hau: oinarritzko gizarte zerbitzuak ez direla iritsi, benetan, gizarte zerbitzuetan sartzeko atea izatera, eta, egiaz, egoera gaizkitu egin dela gai horri dagokionez.
- Oinarritzko gizarte zerbitzuak ezin izan dira kokatu Gizarte Zerbitzuen Sistemaren erdian, oinarritzko gizarte zerbitzuen gaineko 2009ko txosten bereziko gomendioetako batean adierazi zen bezala, euskal gizarte zerbitzuak ez direlako osatu, errealitatean, sistema bakar bat bezala. Ildo horretatik, bilerako parte-hartzaile batzuek argi eta garbi zalantzan ja-

rri dute EAEn gizarte zerbitzuen sistema komun bat sendotzeko bidean aurrera egiten ari ote den, eta zatiketa handia dagoela adierazi dute, izan ere, zenbat lurralde historiko, hainbat gizarte zerbitzuen sistema daude, eta, are gehiago, zenbat udal, hainbat gizarte zerbitzuen sistema.

- Bileran parte hartu zuten pertsona batzuen aburuz, sistema homogenea edo bakarra ez izateak beste arazo bat dakar berekin: ez dago jarduteko eredu komunik, ez artatutako pertsonekin banan-banan esku hartzeari dagokionez, ezta ere, ikuspegi orokorragotik begiratuta, oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizun, helburu, zeregin eta ezaugarriei dagokionez ere.
- Azken batean, parte-hartzaileen ustez, errealitatean ez da gauzatu 2008ko Legeak egin zuen apustua lehen mailako arreta-zerbitzuak eta, oro har, udalen gizarte-ekintza bultzatzearen alde. Horien gainean adierazi dute oinarrizko gizarte zerbitzuen arazoak ezin direla bereizi udalen gizarte-zerbitzuen egoeratik eta, zehazkiago, horien bi arazo nagusietatik: bata, ez dagoela diru nahikorik gizarte zerbitzuen arloan araudiak eman dizkien betekizunei erantzun ahal izateko, oraingo finantzaketa-eredua desegokia delako; eta, bestea, lurralde antolamendurako egungo ereduak gehiegizko arreta eskaintzen diela udal mugapeei.
- Ikuspuntu horretatik begiratuta, eztabaidan parte hartu duten zenbait pertsonak argiro adierazi dute ea zentzurik ba ote duen udalen esku egoteak gizarte zerbitzuen eta gizarte babes osoaren esparruan funtsezkoak diren eskumen batzuk, kontuan hartuta udal asko oso txikiak direla (eta, horren ondorioz, baliabide tekniko eta giza baliabide gutxiago dituztela) eta horrek berekin zatiketa dakarrela.
- Erakundeen arteko koordinazioa dela eta, Lanbiderekin dagoen koordinazioa aztertu zen eta hainbat arazo daudela adierazi zen, funtsean datuak tokiz aldatu besterik egiten ez delako, pertsonen beharrei erantzuteko orduan helburu berberak izan gabe. Horrela, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten eta udalek artatzen dituzten pertsonen buruzko informazioa Lanbidera bidaltzen da, baina ez, ordea, Lanbiderekin inklusio-hitzarmena egitea adosten duen pertsonen buruzko informazioa. Koordinazio-harremanak profesional bakoitza libre egotean ala ez egotean oinarritzen dira.
- Bilerako parte-hartzaileek sarrien adierazi duten kexetako bat hauxe da: Lanbideek hurkotasun gutxiko tratua ematen diela bere zerbitzuetara joaten diren pertsona baztertuei edo baztertuak izateko arriskuan daudenei; pertsona horiek oinarrizko gizarte zerbitzuekin ere harremanetan egoten dira. Horren haritik, bilerako parte-hartzaile batzuek ikusi dute Lanbiden gehiegizko zurruntasuna dagoela DBEa jaso ahal izateko irizpideak ezartzerakoan. Horren ondorioz, pertsona batzuk sistematik kanpo geratzen dira eta udalen fondoak erabiliz artatu behar dituzte, edo, halakorik ez badago, hirugarren sektoreak artatu behar ditu. Era berean, kritikatzin dute errenta emateko baldintzak modu automatizatuegian ezartzen direla, eta, areago, ezarri beharreko araudian agertzen ez diren irizpide murrizgarri batzuk ere aplikatzen direla, eta gero ez dela behar bezala zehazten eskaerak zergatik ukatu diren. Lanbideek ez ditu kontuan hartzen oinarrizko gizarte zerbitzuetan egiten diren gizarte-diagnostikoak edo gizarte-lana; hortaz, familiaren egoerari dagokionez, ikuspegi ezberdina dauka eta, zenbaitetan, bateraezina.
- Koordinazio soziosanitarioari buruz, esperientzia onak daudela eta aurrerapauso batzuk egin direla nabarmendu duten arren, agerian jarri dute eremu soziosanitarioa medikalizatzeko biderantz jotzen ari dela nolabait, eta gizarte zerbitzuen sistemak, hain zatituta egonda, arazoak dituela osasun sistemarekin koordinatzeko, hori oso bertikala eta zentralizatua baita.

- Orokorrean, bileran parte hartu duten pertsoneri motela eta eskasa iruditzen zaie 2008an onartutako Gizarte Zerbitzuen Legearen arau-garapena. Lege horren garapen motelaren zergatiak azaltzeko orduan, finantzaketa-arazoak aipatu dira lehenik, eta, zehazkiago, eredu argi eta adosturik ez izatea lege horren garapenak berekin dakartzan finantza-zamak erakundeen artean banatzeko.
- Zorrozki ekonomikoak diren gaiak alde batera utzita, legearen garapena geldiarazi duten beste arrazoi batzuk ere aitatu dituzte. Besteak beste, lehenik eta behin, ez dagoela erakundeen egiazko konpromisorik lege hori garatzeko; bilerako parte-hartzaile batzuen iritziz, horrek kolokan jartzen du legea onartuz lortu zen akordioaren indarra. Legea indarrean jarri ostean, oso ikuspuntu desberdinak ikusi dira gizarte zerbitzuen etorkizunari buruz eta erakundeen maila ezberdinek haren garapenean bete behar duten eginkizunari buruz. Hori legearen garapena zailtzen ari da, izan ere, araudi komuna onartu beharra dago biztanle guztiei laguntzak eta zerbitzuak jasotzeko berdintasuna bermatzeko, eta hori ezin bateratuzkoa da udal zatiketarekin edo foru aldundien ikuspegi partzialarekin. Gai horretan, pertsona batzuek jarrera zentralistagoa antzematen dute, EAE osoan berdintasuna bermatzeko esparru arautzaile komuna zehazteko orduan, erakunde autonomikoek garrantzi handiagoa izatearen aldekoa; aldiz, badago beste jarrera bat municipalistagoa edo foralistagoa, arlo horretan beraien politikak ezartzeko asmoz, foru eta udal erakundeen autonomia aldeztu duena.
- Badirudi denak ados daudela komunitateko gizarte-lana indartzeko gaur egun dauden arazoen gainean, eta oso gutxi diote lan hori benetan egiten ari dela. Hizketa-gai nagusia, hauxe da, batez ere: lan hori zein arrazoik eragozten edo zailtzen duten zehazten saiatu behar dela. Horrela, bilerako parte-hartzaile gehienek ustez, denbora eta baliabideak falta dira eginkizun horietan sakontzeko. Beste elementu bat ere nabarmendu dute: ez dago borondate politiko irmorik komunitate lana indartzeko. Ez dira aintzat hartzen prebentzionalaren onurak, eta ez da hori bultzatzeko baliabide egokirik jarri. Aurrea hartzea erraztuko lukeen esku hartzeko eredurik ere ez da zehaztu.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuetan eragina duten arrisku psikosozialeko faktoreei buruz, tentsio-egoerak sortu dituzte lehen aztertu diren faktoreek, baita ere eginkizunak zehaztu gabe egoteak, edo erabiltzaile batzuen aldetik erasoak jasateko arriskuak, edo arduradun politikoen edo maila berekoan arteko gatazkek, eta laguntzeko neurririk (ikuskatzeko edo trebatzeko guneak) ez izateak; tentsio-egoera horiek zenbaitetan laneko osasunean izan dute eragina, parte-hartzaile batzuek adierazi dutenez.